

## EUSKAHALDUN BERRIA, ZORIONAK!!!



### 1- Zergaitik hasi zinen euskara ikasten?

Eskola garaietatik, gramatika eta oinarrizko kontzeptuak neuzkan nire buruan... baina ez nuen pentsatu nire bizitzan erabiliko nituenik.

Seme alabak ikastolan hasi zirenean konturatu nintzen oso garrantzitsua izango zela euskara erabiltzea; ez bakarrik etxeko lanetan laguntzeko. Nire kasuan, ez nituen seme-alabak ikastolara eraman haiek ikastolan euskara hitz egiteko, baizik eta ere haiek euskaraz bizitzeko. Eta pentsatu nuen nik ahalegin txiki bat egin behar nuela hori lortzeko...

### 2- Zerk lagundu zizun bereziki ikasketa prozesuan?

Ez neukan denborarik euskaltegira joateko, horregatik autoikaskuntza ikastaro batean apuntatu nintzen. Bi urte aritu nintzen; orain utzi egin dut, ez daukat ordu bat ere egunean autoikaskuntza lantzeko... Baina ikastolan egiten dugun mintzapraktikak gehien laguntzen nauena da. Mintzapraktikako gurasoak, horiek bai dutela euskararekiko maitasuna!!

### 3- Zer irabazi duzu euskara jakinda?

Niretzako, oraindik, helburua da ni euskaraz komunikatzeko gai izatea, eta uste dut, pixkanaka lortzen ari naizela. Hau poza irratia edo telebista entzun eta ulertzea!!

### 4-Zer aholkatuko zenioke ikasi nahi edo zalantzan dagoen norbaiti?

Jakina hizkuntza ikasi beharrezkoa dela; baina nire kasuan, lotsa kentzea eta, gutxienez norbaitekin beti euskaraz hitz egiten ohitura hartzea, garrantzitsuena izan da.

➔ Isabel Cobreros, ikastolako ama